

Bertizko Markategiko Hide/behatokia. Erabilera-protokoloa.

Bertizko Natur Parkeak Markategin hegaztientzako Hide/behatoki bat inauguratu zuen 2018. urtean bisitariari hegaztiak hurbiltzeko azpiegituz hornitzeko helburuarekin.

Bertizko Markategiko Hide/behatokiak bi erabilera nagusi izango ditu, eskola-taldeetarako ingurumen hezkuntzarako alde batetik eta faunaren argazkigintzarako bestetik. Apiril-ekaina eta urri-azaroko hilabeteetan ingurumen hezkuntzarako lehenetsuneko egunak astearteak, ostegunak eta ostiralak izango dira. Egutegia eta arreta ordutegiak kontsultatzea komeni da hala ere. Gainerako egunetan, Hide-aren erabilerarako lehenetsuna faunaren argazkigintza eta behaketakoa da.

Erabiltzaile kopurua (Harreraren Ahalmena):

Hide/behatokia, ingurumen hezkuntzako jardueretan gehienez 20 pertsonen erabiltzen ahaliko dute eta argazkigintzarako erresebetan, gehienez 3 argazkilarik erabili ahal izango dute. Zerbitzu hau ahalik eta pertsona gehienek eskutara egon dadin, argazkigintzarako baimenak ezin izango ditu hiru saio jarraitu gaitu erabiltzaile berarentzat.

Hide-aren erabilera garaia:

Hide/behatokia urte guztian zehar erabili ahal izango da. Oraingoan, emaitzarik onenak urritik aurrera eta martxoaren amaiera arte ematen ari dira. Udaberrian hurbiltzen diren txori kopurua jaisten da, eta uztaitetik aurrera mugimendu gehiago ikusten hasten da, baina udazkenara arte moderatua izan ohi da.

2019. urtean ur-aska bat jarri da baina oraindik ez da ezagutzen nola darabilten txoriek bero egunetan. Posiblea da etorkizunean askak bero egunetan joko ematea.

Hide-a erreserbatzeko aldia:

Erreserbak egun guztian zehar Hide-az gozatzea baimentzen du. Ordu batzuetan zehar soilik erabiliko duten argazkilariek baleude, eta beste eskaera bat balego gainerako orduetan eta erabiltzaileen artean interferentziarik ez balego, beste pertsona batzuei eskeini ahal izango zaie.

Hide/behatokiaren eskaera:

Hide-aren erabilera eskatzeko posta elektronikoz egin daiteke (cinberti@cfnavarra.es) edo telefonoz baita ere (948592421). Hide-a eskatutako egunetarako libre ez balitz egongo, eskatu den modu berean komunikatuko da eskaera berria egin ahal izan nahi ezker.

Hide-a erreserbatu duen argazkilariak Bertizko Natur Parkeko langileei jakinarazi beharko die (948592421) bere iritsiera baino 48 ordu lehenago, 10etatik 14etarako ordutegian, atea irekiko duen zenbaki konbinazioa jakiteko.

Markategiko Hide-aren eskaera momentuan:

Aldez aurretik Hide-a ez erreserbatu arren, hau libre badago Parkeko bisita egiten den egunean, erabili ahal izango da. Horretarako Parkeko langileekin harremanetan jarri beharko da, Hide-a libre dagoela konfirmatzeko, ordaindu eta ateko zenbaki konbinazioa eskuratzeko.

2019-ko salneurria:

Salneurria eguneko eta argazkilariko 5 €-takoa da. Denborarekin Hide-ra hegazti gehiago sar daitezela espero da, eta beharbada salneurri berriak ezarriko dira.

Hide/behatokia bisitatzen dituzten hegaztiak:

Oraingoz, ikusten diren hegaztiak Bertiz-eko basoko txoririk ohikoenak dira: Kaskabeltz txikia, garrapoa, amilotx mottoduna, okil handia, kaskabeltz handia, amilotx urdina, txantxangorria, txonta arrunta...

Erabilera modua:

Hide-ko atea zenbakizko konbinazioarekin irekitzen da. Etxolak bere erabilerarako ireki behar diren pertsiana batzuk ditu, eta gantxo txiki batzuez finkatzen dira.

Behatoki barrenean janaria barruan duen plastiko beltz handiko bidoi bat dago. Etxetik janaria eraman daiteke baina behatokian pipak, garia, ogia, eta koipea dago. Behatokiaren aurrean dagoen totem-ean koipea zuloetan jartzea gomendatzen da. Normalean pipak eta garia etxolaren aurrean kokatutako enborrean jartzen dira.

Askak urik ez badu, bidoi bat urarekin dago etxola barrenean. Ura askan jarri eta bidoi hutsa etxola barrenean utzi.

Markategi-ko Hide/behatokiaren sarbidea:

Hide-rako sarrera Bertizko bide nagusitik Aizkolegiko pistatik oinez egingo da. Sarreratik 700 metrotara, txondorrera iritsi baino lehenago, ezkerrera bide bat ateratzen da goruntz. 100 metrotara artzantzari buruzko panel baten inguruan pareta batzuetara iristen da. 100 metro aurrerago, bidea ezkerretara utziz, Hide-ra iristen da.

Hide-ren lasaitasuna bermatzeko gomendioak:

Jendeari Hide-era ez hurbiltzea eskatzen zaio, hau ez badu erreserbatu, zonalde horretan une horretan dauden hegaztiei oztopatzen ahal dietelako.

Hide-aren erabiltzaileei "Hide okupatua" seinalea jar dezaten gomendatzen zaie, bisitariak Hide-era hurbildu ez daitezten. Seinalea eskuragarri dago behatoki barrenean.

Araudia:

Espazioaren ezaugarrien eta bere bilakaera bermatzen duen prozesu naturalak desitxuratzea, transformatzea, hondatzea edo suntsitzen duen inongo jarduerarik ez dago baimenduta. Dekoratuan aldaketa txikiak egin ahal izango dira baina bukatzerakoan lehenago zegoen bezala utzi beharko da.

Debekatuta dago Hide barruan erretzea, sua egitea eta baimenik gabe akanpatzea.

Behatokiarekin bildutako diruaren norakoa:

Behatokian bildutako diruak janaria erosteko eta azpiegituraren mantenua egiteko balio du. Aparkalekuaren ondoan, mugikortasun urriko jendearengana zuzenduta, beste hegazti behatoki bat egokitu da. Bigarren behatoki honek ez du inongo etxolarik, banku bat eta hegazti ganbela batzuk baizik. Azpiegitura hau doakoa da.

Etorkizunean hegazti argazkigintza/behaketako jardueratik dirua sobratzen bada, berrinbertituko da Bertizko floraren kontserbazioko eta faunako proiektuetan eta bere balio naturaletan.

Legedi aplikagarria:

Basa Faunaren Babeserako eta bere Habitaten Kudeaketako martxoaren 5eko, 2/1993 Foru Legea.

Bertizko Jaurerria Kontserbazioko Zona Berezia deklaritzen duen Erabilerako eta Kudeaketako bere III. Plan gidaria onartzen duen ekainaren 17ko, 68/2008 Foru Dekretua.